

# SI TE AMENAZAN, NOS AGREDEN. ELKARREKIN ASKATASUNAREN ALDE

Es muy llamativa la capacidad del ser humano de no ver lo que tiene delante de los ojos, de no oír lo que llega a su oído, nuestra capacidad de no enterarnos. Discriminamos, seleccionamos, categorizamos, elegimos qué cuenta y qué no cuenta.

Hay aquí, en la sociedad vasca, un miedo de esos que protege y que paraliza. Es el miedo al miedo, al miedo de los otros.

Ni los recordamos, ni los olvidamos, no los pensamos, no los mencionamos, no están. Así su existencia no toca la nuestra, no altera nuestra cotidianeidad, la hora del poteo, ni el sueldo, ni los planes del verano, ni las bodas de la cuadrilla, ni cómo vamos envejeciendo, ni el programa de fiestas, ni... Salvo que, horror, por ejemplo, alguien que lleve escolta aparezca en un espacio compartido, en alguna actividad colectiva que, por lo que sea, no ha quedado restringida a nosotras, nosotros, los nuestros y los de los nuestros.

¿Qué hay que no hacer, qué hay que no decir, para poder quedarse a este lado, donde la vida es más o menos apacible, se puede andar tranquilamente por la calle solo o acompañado, quedar con los amigos sin avisar a nadie, elegir la película y la hora, los amantes, el tipo de concierto, el bar donde tomar la siguiente copa, coger el coche sin mirar debajo? ¿Qué hay que no hacer? ¿Qué hay que no decir para tener derecho a vivir?

(Bake Hitzak, n 73)

**Acto contra la violencia de persecución.**

Pza. de la Virgen Blanca esquina con Postas, 13'00 h.  
Vitoria-Gasteiz, 14 de noviembre de 2009

**Gesto por la Paz**

# MEHATXUA ZURI, ERASOA GURI. JUNTOS POR LA LIBERTAD

Badugu gizakiok aurrean daukaguna ez ikusteko gaitasun deigarri bat, belarrietara iristen zaiguna ez entzutekoa: ez ohartzeko gure gaitasun hori. Bereizi egiten dugu, hautatu, kategorizatu, aukeratu zer aintzat hartu eta zer ez.

Bada hemen, euskal gizartean, beldur babesle eta paralizatzaile bat. Beldurraren beldurra, besteren beldurrak ematen duen beldurra.

Ez ditugu ez gogoratzen, ez ahanzten: ez dauzkagu gogoan, ez ditugu aipatzen, ez daude. Horrela beren existitzeak ez du gurea ukitzen, ez du gure egunerokotasuna bestelakotzen, ez poteak hartzeko ordua, ez gure soldata, edo udarako asmoak, edo koadrilako ezkontzak, ezta ere nola ari garen zahartzen, edo festetako programa, ezta beste ezer ere... ez bada gertatzen (hori bai larria!) bizkartzainekin dabilen bat agertzea guztion lekuren batean, guretzat, gure artekoentzat eta gure artekoen artekoentzat bakarrik ez den ekitaldiren batean.

Zer ez da egin behar, zer ez da esan behar alde honetan gelditzeko, bizimodua nahiko lasaia den gure alde honetan, bakarka edo norbaitekin kaletik lasai ibil gaitezkeenon aldean, beste inori jakinarazi gabe lagunekin gelditzea posible zaigunon alde honetan, nahi bezala aukera dezakegunon aldean filma eta ordua, edo amoranteak, edo kontzertu mota, edo hurrengo kopa zein tabernatan hartu... autoan sartzeko azpian begiratu behar ez dugunon aldean gelditzeko? Zer ez da egin behar? Zer ez da esan behar bizitzeko eskubidea izateko?

(Bake Hitzak, n 73)

**Jazarpen indarkeriaren aurkako ekitaldia.**

Andre Mari Zuriaren Plaza, Postas kalearen kantoian, 13'00ean  
Vitoria-Gasteiz, 2009.eko azaroaren 14a

**Gesto por la Paz**